

P36-50

Sagardo berria aurkeztuko dute bihar Erriberan, Ander Gonzalez gonbidatu bereziarekin

Pandemiak ezohiko sagardotegi denboraldia markatu du. Izan ere, sagardo berria bihar aurkeztuko da Erribera kulturagunean eta Ander Gonzalez A bocados saioko aurkezlearekin batera egingo da.

ASTIGARRAGA SAGARDOA

Sagardo berria eta sagardoaren kulturarekin lotutako aisialdiko eskaintza aurkeztuko da bihar, eta aurtengo gonbidatu berezia, ETB2ko A Bocados saioko Ander Gonzalez aurkezlea izango da. Aurtengo Sagardo Berriaren Eguna, ez da gainontzeko urtetan ospatu den moduan egingo, bizi dugun egoera dela eta. Hala ere, Sagardoaren Lurraldeak argi du presente eduki nahi duela aurtengo sagardo berria. Hori horrela, bihar prentsa aurrean aurkeztuko dute Erriberan, eguerdiko 12:30etan hasita.

Aipatu moduan, pandemiak ezohiko sagardotegi denboraldi honetan, atzera begira jarri eta iraganeko ohiturak gureru ekarri nahi izan dituzte. Izan ere, «XIX.mendearen eta XX.mendearen hasiera arte, Astigarraga eta Hernani modan zeuden beren sagardotegiengatik».

Sagardotegiak, beti izan dira

herriarren aisialdirako gu-
neak, eta horrez gain, «ohikoa
zen bertan bertsolariak zein
kanpoaldean tokan edo bolo-
tan jolasten zebiltzan koadri-
lak topatzea». Tranbia erabiliz,
Donostiako jende asko gertura-
tzen zen Aste Santuan Urumea
bailarako sagardotegietara,
eta «sagardo berria kupeletatik
dastatzen hasten ziren edalon-
tzi nahiz pitxerrekin». Gainera,
antolatzaileek diote, sagardoa
kupel berri batetik dastatzen
hasteko ohitura hura Txotx berri
bezala ezagutzen zela.

Neurrietara egokituta

Aurten Urumea bailarako sagar-
dotegiak, pandemiak ezarritako
segurtasun neurrietara egokitu
eta sagardo berria pitxerretan
dastatzeko ematen dute. Era
berean, aisialdiko eskaintza
osatzeko, Astigarragan koka-
tzen den Sagardoetxea Museoak
plan bereziak prestatu ditu, Aste
Santuan, «sagardoaren kultu-



Bihar aurkeztuko da sagardo berria, Erriberan. Eta aurtengo gonbidatu berezia, Ander Gonzalez izango da. Argazkia: etb.eus

raz goza dezaten herriarrek». Honako ekintza hauek antolatu dira, hain justu: museoetako bisita kulturalak, natur inguruneetako oinezko ibilbideak, sagardotegi nahiz jatetxeetako otorduak, sagardo nahiz pintxo dastaketak, ibilaldiak bizikleta elektrikoan, etab.

Ekintza eta bisita mordoan antolatu dira Aste Santurako, eta «jai egunak une egokiak izan daitezke familian, bikotea-

rekin edo lagun artean gure sagardoaren kulturaz gozatzeko». Horregatik, bihar prentsa aurrean egingo den aurkezpenean, aurtengo sagardo berria eta sagardoaren kulturako esperientzien sustapenerako bideoa aurkeztuko da.

Ander Gonzalez, aurtengo gonbidatu berezia

Ander Gonzalez, ETB2ko A Bocados saioko aurkezlea da, eta bihar, XVIII. Sagardo Berriaren Egunean,

gonbidatu berezia izango da hain justu. Sukaldaria ere bada, Ander Gonzalez, eta aipatu moduan, aurkezlea. Bere sukaldeko lehen pausuak familiaren Astelehena jate-txean izan ziren. **K**

Prentsa aurrean aurkeztuko dute bihar, sagardo berria